

LAUDIO UDALA
KULTURA, KIROLAK ETA JAIK ZERBITZUA

Laudio Udaleko Tokiko Gobernu Batzarraren 2021eko uztailaren 23an erabakiaren laburpena. Erabaki horren bidez, 2021. urtean kirol programak egiteko lehiaketa askeko diru-laguntzen deialdia onartu da.

DLDBN (identifikatzailea):

Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen, Diru-laguntzen Lege Orokorraren 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin bat, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Diru-laguntzen Datu Base Nazionalean kontsulta daiteke (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>): eta Laudio Udal honen web atarian (www.laudio.eus)

Lehenengoa.- Onuradunak.

Deialdi honen bidez arautzen dira gure udalerrian 2021ean norbanakoek edo kirol antolatzen dituzten elkarteek sustatutako kirol-egitasmoak.

Bigarrena.- Xedea.

Gure udalerrian 2021ean kirol-egitasmoak bideratzeko diru-laguntzak ematea.

Hirugarrena.- Oinarri arautzailea.

Laudio Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2021eko uztailaren 23an hartutako erabakiaren bidez onartu zen. ALHAOn argitaratuko da.

Laugarrena.- Zenbatekoa.

Deialdi honetarako zuzkidura 64.583,00 eurokoa izango da, 2021 urteko aurrekontuan eta 0600 3411 48100 partidaren kargutan.

Bosgarrena.- Eskaerak aurkezteko epea.

ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita eta hogeita hamar egun natural pasatu arte.

Laudio, 2021eko uztailaren 28an
Alkate-udalburua, ANDER AÑIBARRO MAESTRE